

18 GIPUZKOA

Oiartzun ibaiaren ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Oiartzun ibaiaren ur-jauzia ibaiaren goiko tartean kokatzen da, Aiako Harria Parke Naturalaren bihotzean. Interes naturalistikoa (paisai paregabe eta bikaina) duen Ibilbidean zehar, ur-jauzira iritsi arte, baso hostotsu batean

sartuko gara. Bertan, batez ere, pagadi azidofiloek (*Fagus silvatica*), haritzek (*Quercus robur*), txilardi-otadiek, iratzedi atlantikoek, gaztainondoek oihaneztapenek eta, batik bat, pinuek (*Pinus radiata*) osatutako baso hostotsu

batean sartuko gara. Ibaian zehar haltz (*Alnus glutinosa*) eta lizarrak (*Fraxinus excelsior*) nagusi diren oihanpea nabarmentzen da.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 8,7 km



2 h 30 min



Hurbileko herria:
Oiartzun



Ibaia:
Oiartzun



Arrisku faktore asko daude.
Zailtasun teknikoak: Azken tartean,
baso-pista uzten dugunean



441 m



441 m




58 m



141 m

OIARTZUN IBAIAREN
UR-JAUZIA





Oartzun ibaiaren ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Oartzun ibaiaren ur-jauzia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko muturrean kokatzen da, Donostialdea eskualdean eta Oartzunetik gertu. Herri honetatik aipatutako tokira iritsi gaitzke GI-3420 errepidea hartzen badugu. Jauzia malkar ezkutu batean dago, bi irtenguneren artean, hirurehun eta berrogeita bat metroko kotan, leku ilun, sarbide zaila eta seinalerik gabeko toki batean. Hura aurkitzen, Masustanegi presa txikiko kanalak lagunduko digu, Oartzun ibaiaren ezkerraldeetik, laurehun eta hamahiru metroko kotatik igarotzen delarik eta ur-jauziaren parean, honetatik oso gertu kokatzen da, baso hostogalkorraren pean, sasi gutxiko inguruan.

Ibilbidea Ergoien auzoan hasten da, Oartzun herrian, Tolare jatetxeko aparkalekuaren parean. Ibilbidea oinez edo mendiko bizikletarekin egin daiteke, GI-3420 errepidea hartuz, Lesakarako noranzkoan. Seigarren kilometroan, eskuinerantz doan saihebidetik, Intzensoro Bidea hartuko dugu. ehun bat metroara pistak Artxabaletako baserriak zeharkatzen ditu, haxe izanik aurkituko dugun azken herrigunea.

Gaztainondoz beteriko pistak hurrenez hurren zeharkatzen du:

Zazpiehun metrora Intzensoro erreka. Lehenengo ubidetik, zazpiehun eta berrogeita hamar metrora, Mandabide erreka igaroko dugu. Mandabide errekatxotik bederatziehun eta hogeit hamar metrora, jaitiera txiki baten ondoren, eskuinean, baserrira eta Penadegiko minizentralera doan saihebidetik utziko dugu. Penadegiko minizentralera joateko saihebidetik laurehun eta hirurogeita hamabost metrora dagoen Olaxar erreka igaroko dugu. Olaxar errekatik mila ehun eta hogeita hamar metrora Oartzun ibaia zeharkatuko dugu. Oartzun ibaiaren bidegurutzetik berrehun metrora eta Ergoien aparkalekutik zazpi koma zortzi kilometrora, mendian sartzeko pista utzi behar da. Baso-pista uzten dugun tokitik laurogeita hamar metrora, maldan behera jaitziko gara banalerro edo mendi-kordal batetik, pinudi bat zeharkatuz, kanalaren gainetik eta igaro beharko dugun pasabidea aurkitu arte.

Kanala mendebaldeantz jarraituko dugu, eskuinaldeetik, laurehun metrotan zehar, kanalaren gainean dagoen bigarren pasabide baten inguruan, albotik igaroko dugun alanbre-hesi pasabide bat aurkitu arte. Toki honetan maldan behera jaitziko gara, hirurogei bat metroko desnibela duen mendi-kordalaren edo banalerroaren ezkerretik, ibaia aurkitu arte. Jaitiera hasi eta gutxira, ur-jauziaren soinua entzuteko aukera izango dugu. Malda handia dela eta, kontu handiz ibiliko gara behatoki natural batera iritsi arte. Bertatik, ur-jauzia ikusi edo metro batzuk beharago ubidera jaisteko aukera izango dugu bertako putzuetan bainatzeko. Itzulera etorri garen toki beretik egin dezakegu edo, ibilbide zirkular bat eginez, pista Lau koma bi kilometrotan zehar jarraitu bere azken tartean Artikutzako GI-3631 errepidera iritsi arte. Hortik, Oianleku parajetik alegia, berriro ere Oartzun aldera jaitsi ahal izango gara.

Ibilbidea urteko edozein sasoiaren egin daiteke, baina eurite eta urte-aldien ondoren, erreken emaria handiena denean, ur-jauzia bere ederrenean ikusteko aukera paregabea izango dugu. Kontu handiz ibili, zoru bustiarekin, mendi-hegala ibaiarekin bat egiten duen jaitzian.





Deskargatu
ibilbidea:



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Oiartzun ibaiaren ur-jauzia



Oiartzun ibaiaren ur-jauzia

